

Proiektu honen helburua ile-galera jasaten duten pertsonei zuzendutako ileorde ekologiko eta pertsonalizatuen enpresa sortzea da, bereziki minbiziaren ondorioz tratamendu gogorrak (kimoterapia, erradioterapia...) jasaten ari diren pertsonentzat pentsatua. Enpresak kalitate handiko, erosoak eta itxura naturaleko ileordeak eskaintzen ditu, bezero bakoitzaren behar estetiko eta emozionaletara egokituta.

Gure egitasmoak ez du soilik produktu bat eskaintzen, baizik eta laguntza integrala: aholkularitza pertsonalizatua, orientazioa eta hurbiltasuna, bezeroek prozesu zail honetan seguruago eta lasaiago senti daitezen. Horretarako, pertsonaren ongizatea eta autoestimua erdigunean jartzen ditugu, arreta gizatiarra eta enpatikoa eskainiz.

Ileordeak material ekologiko eta naturalekin ekoizten dira, jasangarritasuna eta ingurumenarekiko errespetua bermatuz. Horrez gain, enpresaren irabazien zati bat minbiziaren inguruko ikerketetara bideratuko da, proiektuari balio sozial eta solidario handia emanez.

Laburbilduz, gure proiektua osasuna, estetika, jasangarritasuna eta elkartasuna uztartzen dituen enpresa da, ile-galera jasaten duten pertsonei normaltasuna, konfiantza eta bizi-kalitatea berreskuratzen laguntzeko sortua.